

DANI BLANCO



Gorka Moreno Márquez

♦ EHUko IRAKASLEA

Datorren ongizate estatua: zubirik gabeko igaroaldia

ONGIZATE ESTATU tradizionalaren gizarte-hitzarmenaren arazo estrukturalak pobrezia eta gizarte-bazterketa dira. Hartara, gizarte-politikak gizartearen elkartasunaren adierazle dira eta hiritar bakoitzaren eskubide. Azken urte hauetan ikuspegi hau zalantzan jartzen ari da “aktibazio” ereduaren bidez. Aktibazioak prestazio ekonomikoa edota gizarte laguntza jasotzen duten pertsonen lan merkaturatzea ahalik eta azkarren sustatzea planteatzen du. Hori lortzeko, besteak beste, zigorrak, behartzeko neurriak edota prestazio horien diru-kopuruen murrizketak aplikatu dira.

Aldaketa horrek zalantzan jartzen du orain arte nagusi izan den eredu. Izan ere, pobrezia-erikiko gizarteak duen arduraren eta hiritarren gizarte-eskubideen aurrean, orain nagusitzen ari den gerturapenak norbanakoaren ardura azpimarratzen du, eta hortaz, norbera da bere egoeraren erantzule. Era berean eskubideen jabe da, baina baita betebeharre-na ere. Mutazio horrek isla nabarmena du hizkeran bertan. Horrela, gero eta gutxiago erabiltzen da “enplegu falta” –egiturazko faktorea– eta gero eta gehiago “enplegugarritasun falta” –norbanakoaren kalitatea–. Gero eta gutxiago ziurgabetasunaren aurrean babes eskaintzea –ardura kolektiboa– eta gero eta gehiago norberak aldaketarako dituen ahalmenen laudorioa –norberaren izaera–.

Hizkeraz gain, eredu aldaketak hainbat ondorio sorrarazi ditu errealitatean. Lehen, gure gizarteetan gehiengo zabala integratuta bazegoen ere, gero eta gehiago

dira integrazio horretaz disfrutatzeko gai ez direnak eta gizarte-zargarritasun egoeran kokatzen direnak, gizarte-dualizazioa gero eta nabariagoa izanik.

Orain arte gizarte-politikek zubi gisa jokatu dute, horren bidez, ertz okerrean zeudenek bestaldera igarotzeko aukera izaten zuten. Momentu hauetan zubi leherrarazi dute, eta lehenengo aldiz azken 200 urteetan, belaunaldi bat aurrekoa baino okerrago bizi daiteke etorkizunetan, 40 urte azpitik daudenak –gaudenok– alegia. Eta okerrera,

*Dohain indibidualetan
oinarritutako soluzioek
ez dute inongo
aukerarik gure gizartearen
ongizatea eta kohesioa
bermatzeko*

aktibazioak testuinguru honetan planteatzen duen salbaziorako bidea hau izaki: bilatu ezazu txalupa bat, arraun egin ezazu ahal bezainbeste eta horrela lortuko duzu beste ertzera ailegatzea.

Eredu honek ahaztu egiten du jende askok txalupa erosteko aukerarik edota arraunean airtzeko indarririk ez duela. Beste era batera esanda, norberarengan eta dohain indibidualetan oinarritutako soluzioek ez dute inongo aukerarik gure gizartearen ongizatea eta kohesioa bermatzeko. Dena den, hauxe da etorkizuna... eta oraina. ■



**BERTSO
BERRIAK**

**Uxue Alberdi
Estibaritz**

♦

Doinua: Habanera.

Abortu eskubideari



Urte luzetan egina
klandestinoki, gordeka...
Prezioa: arriskua
eta milaka pezeta.
Feministen aldarriak
zartatu zuen pareta,
umetoki bakartuak
elkartu ginen taldeak:
"nik ere abortatu dut!"
garrasi bat zen, kolpeka.
Isil dezagun sotanen
ta gorbaten berriketa
bizia aitzaki jarritz
legeen baitan gordeta
gorputzaren jabegoa
negoziatzen dute-ta.

Zein da gai honen mamia?
Zein asuntorearen funtsa?
Zer dela eta PP-ren
seta, ardura, zaputza?
Betikotu nahi dutela
emearen zapalkuntza,
iraunaraziz objektu,
oztopatuz jabekuntza.
Uteroa geurea da,
izan betea zein hutsa.
Geure zulo, geure odol:
ez inoren bozka-kutxa.
Arma gaitezten: bularrez,
aluz, hortzez egin bultzat!
Gudu-zelai bilakatu
digutelako gorputza.

Ez apaizak, ez obstetrak,
ez maisuak, ez senarrak,
ez juezak, ez nobioak.
ez mediku egoiliarak,
ez aitak, ez poliziak,
ez jakintsuen biltzarrak,
ez politiko progreak,
ez sektore eskuindarrak,
ez familia plangintzek,
ez etsaiak, ez gutarrak
ez Freudek, ez Jaungoikoak
ez katedradun azkarrak,
ez ohiturak, ez legeak,
ez potroek, ez bizarrak:
geu gara zer behar dugun
ondo dakigun bakarrak. ■